

# BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

UDALTZAINGOA

## ✓ **PROPOSAMENA : 46**

Larramendi eta Onddi kaleen arteko bidegurutzean neurriak hartu, bide segurtasuna hobetuz.

Behetik ( Elizatxotik) datozen ibilgailuek ez dituzte oinezkoak ikusten eta honek arriskua suposatzen du. Ohikoa da , ibilgailuak dagokien abiaduraren gainetik ibiltzea. Beste batzuk bidegurutzearen zabaltasuna erabiltzen dute buelta emateko ( biribilgune baten antzera).

## ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Bide honetan eta bereiziki Elizatxorik datozen ibilgailuen ibilbidea ikusita, tunelaren aurretik edo tunelean bertan, bi seinale berri jartzea proposatzen dugu.

Seinale batek 30 kilometro orduko abiadura debekatzen duena eta besteak oinezkoen pasabidea dagoela adierazten duena. Bide batez, errepidean bertan 30 zenbakia ere pinta daiteke.

Aurrekontuaren mantenamendu eta pintaketa partidan sartuta ez du bestelako gasturik suposatu behar.

## ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA ( aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

2019ko udaberrian pintaketa. Seinaleak 2019ko lehen hiru hilabetean.

## ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Herri lan saila.

## ✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

## BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

ZERBITZU PUBLIKOAK

### ✓ **PROPOSAMENA**

Neurriak hartzea oinezkoa ikusgarri egiteko. Horretarako espaloiak zabalduaz aparkatzeko autoen pareraino. Hainbat zebra-bidetan autoek ezin dituzte oinezkoak ikusi eta oinezkoak autoak ere ez.

### ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOIA:**

Proposatzen dena, orokortu gabe, hobekuntza egokia izan daitekeela uste da.

Aipatzen diren eremuetatik, hau egiteko behar gehien ikusten den puntua Elkano Kalea da (Motos Santi inguruan).

Espaloia zabaltzeak egungo espaloia aldatu beharra ekartzen du eta zerbitzuak egoera berrira moldatu beharra.

Azterketa sakona aldez aurretik egitea proposatzen da, eta aukeratutako hiru oinezkoen zebrabidetan hau egitea aurreikusten da.

### ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

45.000€.

### ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Urte bat.

### ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Zerbitzu publikoak.

### ✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

Urte bat (2.019).

### ✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesuan aurrera.

# BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

UDALTZAINGOA  
HERRILAN

## ✓ PROPOSAMENA :

Atsegindegiko kohesistentzia gunean hobekuntzak egitea.

## ✓ BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:

- Gunearen altuerak egokiak dira. Ez dugu aldatzeko beharrik ikusten.
- Ikertxo gozotegitik irlarako bidea kohesistentzi gunea da eta oinezkoek lehentasuna dute. Ez dugu zebra bide berri bat margotzeko beharrik ikusten.
- Ikertxoko espaloitik polikiroldegiko espaloirako bidea kohesistentzi gunea da eta oinezkoek lehentasuna dute. Ez dugu zebra bide berri bat margotzeko beharrik ikusten. Metro gutxira badago oinezkoen pasabidea margotuta.
- Elkano kalean (polikiroldegiko aldaparen bukaeran) kohesistentzi gunea azaltzen duen seinalea jartzea egokia da. Ontzat ematen dugu.
- Elkano kalean dagoen seinalea kohesistentzi gunera gerturatzea ez dugu egokia ikusten. Ez dago leku egokirik hurbiltzeko, ezinduen aparkalekua, motorren aparkalekua eta autobus publikoen geltokia jarraian daude eta. Seinalea okertuta dagoenez, Elkano kaletik datozenek hobeto ikus dezaten, biratu egin behar da. Ontzat ematen dugu leku berean birkokatze beharra.
- Irla eta ondoan gelditzen diren espazioak zuhaitz eta berdeguneekin berdetzeko proposamena ez da bideragarria egungo kohesistentzia antolaketarekin, espazio guztiak oztoporik gabe mantentzen direlako gune honetan elkartzen diren bide guztien zeharkatzea errazteko.

## ✓ AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):

## ✓ PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:

2019ko lehen sei hilabeteetan : seinale berria jartzea eta dagoena birkokatzea.

## ✓ PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:

Herrilan saila

## ✓ PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)

Prozesuan aurrera

## BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

UDALTZAINGOA

### ✓ **PROPOSAMENA : 65**

Atsegindegi, Izpizua, Urbietza, Txillida pasealekua eta Zinko Eneako kohesistentzi guneen hasiera eta bukaerako malden altuera aldatzea. Ibilgailuak araututako abiaduran igarotzeko adinako desnibelik ez dute.

### ✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Gunen hauen altuera egokia da eta araudiak diona betetzen dute. Ibilgailuek aurretik mantsotu behar dute abiadura, kohesistentzi eremuan sartu aurretik. Seinaleek indartzen dute eremuaren hurbiltasunari buruzko informazio osagarria.

Ez dugu une honetan gune hauen altuera aldatzeko premiarik ikusten. Bai ordea, gune hauek kolore biziz margotuta egotea, ikusgarriak izan daitezen eta kolore hau urte osoan mantentzen dela ziurtatzea.

### ✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

### ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

2019ko lehen sei hilabetea.

### ✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Herri lan saila.

### ✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Kohesistentzi guneak margotzea, prozesuan aurrera.